

## IRAKASKUNTZA-GIDA

2015/16

**Ikastegia** 160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa** 1. maila

## IRAKASGAIA

25942 - Antropologia eta Gizarte Langintza

**ECTS kredituak:** 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Antropologia eta Gizarte Langintza ikasgaiak, antropologia disziplinak garaiko gizarteetaz eta aniztasun kulturalaz eskeintzen dituen interpretazioak eta marko analitikoak izango ditu aztergai. Horretarako, antropologiaren egile eta joera teoriko nagusienetara hurbilduko da. Azken xedea ezagutza antropologikoak Gizarte Langintzan sakontzeko eta gure praktikan hobetzeko ezinbesteko tresnak eta ezagutzak eskeintzen dituela ulertzea da. Ikasgaia honetan antropologia disziplinaren ikertzeko metodoek eta ezagutzek gizarte langintzara egin ditzazketen ekarpenak aztertuko dira.

Antropologia eta Gizarte Langintza ikasgaiak Gizarte Langintzaren Ardurapeko Prozesuak eta Arazoak moduluan (C modulua) kokatuta dago. Modulu honetako beste ikasgaiak Filosofia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Gizarte Langintzarako Psikologia (1.go maila), Soziologia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Gizarte Egitura eta Estratifikazioa (2. maila), Gizarte Langintzarako Gizarte Psikologia (2. maila) dira.

Lehen mailako oinarrizko ikasgaia da eta lehenengo lauhilabetean eskeintzen da euskaraz eta erderaz. Haren balioa 6 Ects-ekoa da, hau da, guztira 150 ordu. Lanordu hauek hurrengo moduan banatzen dira: 60 ordu presentziatzko irakaskuntzarako eta 90 ez presentziatzko. Astero 10 lanordu egingo dira; 3 ordu klase teoriko, ordu 1 praktika eta 6 ordu ez presentziatzko lanerako. Irakasgaia honen dozentzia Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailari dagokio.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

### GAITASUN OROKORRAK:

- G.O.1. Pertsona, familiak, taldeak, erakundeak eta komunitateen sorkuntza eta garapen prozesuak aztertzea
- G.O.2. Norbanakook testuinguru kulturean duten jarrera baldintzatzen dituzten oinarrizko prozesu eta elementuak ulertzea.
- G.O.3. Norbere burua ezagutzeko gaitasuna garatzea etorkizuneko praktika profesionala etikoa eta ez etnozentrismoa izan dadin
- G.O.4. Jarrera, estereotipo eta aurreiritzi sozialen sorkuntza mekanismoak eta aldaketak antzeman bazterketa egoera arriskuan bizi diren gizataldeen behar sozialen prebentzio eta diagnostikoetan aplikatzeko.
- G.O.5. Talde nortasunen formakuntza prozesu subjektiboaren izaera kulturalaz haunartu.

### IKASTEAREN EMAITZAK:

- G.Z.1.- Gizarte Langintza ikuspuntu zabal eta holistiko batean onartzeko gauza izatea. Horretarako, gertakari sozialen jatorrian edo/eta garapenean zerikusia duten aldagaien konplexutasunak kontuan hartu behar dira.
- G.Z.2.- Antropologian sortutako teoriara eta ezaguera etnografikoetara gerturatzea, gizarte-mailaketa eta desberdintasuna aztertzeke.
- G.Z.3.- Aztertuko diren gizarte-errealitatea eta -arazoak ikuspuntu kritiko batetik garatzea ahalbidetuko dituzten ezaguera eta lan-tresna kontzeptualak eskuratzea, non pertsona eta eragile inplikatuaren definizioei eta arazoiei leku nabaria emango zaien.
- G.Z.4.- Kulturaren izaera dinamikoa eta dimentsio sinbolikoa ulertzea eta haiei buruz hausnarketa egitea, kontuan hartuta beren leku- eta denbora-aldakortasunak, eta egungo gizarte kulturantzak aztertzerakoan dituzten eraginak.
- G.Z.5.- Genero-sistemen ekoizpenean eta erreprodukzioan parte-hartzen duten faktoreak ulertzea, bai eta hainbat fenomeno sozial eta kulturaletan antropologia feministak egindako ekarpenak ulertzea ere.
- G.Z.6.- Antropologia sozialaren metodologia eta ikerketa-teknika erabilienak ezagutzeko eta praktikara eramatea, arazo edota egoera sozialeko analisian, diagnostiko sozialak osatzerakoan, eta pertsona, talde edota kolektiboekin egin beharreko lana planifikatzerakoan.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Antropologia Kulturalaren sarrera. Antropologiaren ekarpena gizarte langintzara
2. Antropologiaren kontzeptu funtzeskoenak: kultura eta kultur aniztasuna, gizarte kultura erlatibismoa, etnozentrismoa, holismoa, arrazakeria.
3. Antropologiaren Historia: egile, eztabaida eta teoria nagusiak

4. Estratifikazioa eta desberdintasun soziala: bazterketa soziala eta kulturalaren interpretazio antropologikoa
5. Genero-sistema teoría eta eztabaida feminista gizarte gertakarietan aplikatuta
6. Sinbolo sistemak
7. Ondorioak: Antropologiaren ekarpenak gizarte langintzara

#### METODOLOGIA

Ikasgaia klase magistralez eta praktikoen bidez garatuko da.

Klase magistraletan irakasleak gaitegiaren edukien inguruko azalpenak emango ditu. Azalpenak irudikatzeko behar diren ikusentzunezko euskarriak erabiliko ditu. Horretaz gain, landutako ezagutza teoriko hori barneratzeko ikaslegoak zenbait ariketa egingo ditu ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo.

Klase praktikoetan bereziki sintesi gaitasuna eta talde lana landuko dira. Testuak sistematikoki lantzen ikasiko da eta baita ere zenbait irakurketetatik oinarritzko edukiak publikoaren aurrean aurkezteko baliabideak.

#### IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

#### EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

#### KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia 30%
- Test motatako proba 30%
- Banakako lanak 10%
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) 10%
- Lanen, irakurketen... aurkezpena 20%

#### OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgaiak ebaluazio sistema mistoa erabiliko du eta horrexegatik klaseen %80ra etortzea derrigorrezkoa da.

Azken froga nota osoaren %50-a baino gehiago suposatzen duenez, deialdiari uko egiteko frogara ez aurkeztearekin nahikoa izango da.

Ikasleren batek justifikatutako arrazoiren batengatik (Kudeaketa Akademikoko Araudiko 43. artikuluan jasotakoak) ezin bada klasera etorri eta ikasgaiaren azken ebaluaziora etorri behar bada, irakasleari alde aurretik jakinarazi beharko dio eskolak "Azken ebaluazioa eskatzeko prozedurari" jarraituz (web gunean)

#### EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azken froga nota osoaren %50-a baino gehiago suposatzen duenez, deialdiari uko egiteko frogara ez aurkeztearekin nahikoa izango da.

#### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Lehenengo sei gaien inguruko ikasgaiko apunteak (PDFan e-gelan)
- Gai bakoitzaren power point aurkezpenak (PDFn e-gelan)
- Testu antropologikoa lantzeko gida (PDFn e-gelan)
- Lantaldea egiteko irizpideak (Power Pointean e-gelan)

DERRIGORREZKO IRAKURGAIK:

- Bohannon, Laura (2010). "Shakespeare en la selva". In: Velasco, H.; Cruces, F.; Díaz de Rada, A. Lecturas de antropología social y cultural. UNED: Madrid. (53-66)

- Castel, Robert. (1995). &#8220;De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso&#8221; In: VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21. Board: Barcelona.
- Fernandez de Larrinoa, Kepa. (1992). Ospakizuna, errituala eta historia: mendebalde urrutiko euskal jaiak antropologiaren harira. Eusko Jularitza: Gasteiz.
- 2. kapitulua &#8220;Lehenengo euskal emigrazioa&#8221;
- 6. kapitulua &#8220;Euskal jaiak. Irudiak eta metaforak&#8221;
  
- Fernandez, T; Aleman, C. (2006). &#8220;La antropología&#8221; En: Introducción al Trabajo social. Alianza: Barcelona (211-215)
- Gonzalez de Garai, I.; Gaztañaga, A. ; Iriondo, R. (1999). Klaseak, erlijioa, generoa eta adina gizarte ezberdinetan. Gaiak: Donostia
- 1. kapitulua &#8220;Etxeko bizimoduen antolamendua eta ahaidetasun harremanak&#8221;
- 2. kapitulua &#8220;Generoa eta adina; gizartea mailakatzeko bi eredu&#8221;
- 7. kapitulua &#8220;Erlijioa&#8221;
- Harris, Marvin (1996). Kulturaren enigmak: behiak, zerriak, gerrak eta sorginak. Gaiak: Donostia
- &#8220;Ama behia&#8221;
- &#8220;Potlatxa&#8221;
- Juliano, Dolores. (2002). &#8220;Los desafíos de la migración. Antropología, educación e interculturalidad&#8221;. Anuario de psicología Vol. 33, nº 4 (487-498)
- Zulaika, Joseba. (2012) Tradizioak. Etxepare Euskal Institutua: Donostia.
- &#8220;Baserria eta auzotasuna&#8221;
- &#8220;Baserritarren eta arrantzaleen tradizioak eta horien arteko aldeak&#8221;

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

- Bohannon, Laura (2010). &#8220;Shakespeare en la selva&#8221;. In: Velasco, H.; Cruces, F.; Díaz de Rada, A. Lecturas de antropología social y cultural. UNED: Madrid. (53-66)
- Castel, Robert. (1995). &#8220;De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso&#8221; In: VV.AA. Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21. Board: Barcelona.
- Fernandez de Larrinoa, Kepa. (1992). Ospakizuna, errituala eta historia: mendebalde urrutiko euskal jaiak antropologiaren harira. Eusko Jularitza: Gasteiz.
- Gonzalez de Garai, I.; Gaztañaga, A. ; Iriondo, R. (1999). Klaseak, erlijioa, generoa eta adina gizarte ezberdinetan. Gaiak: Donostia
- Harris, Marvin (1996). Kulturaren enigmak: behiak, zerriak, gerrak eta sorginak. Gaiak: Donostia
- Juliano, Dolores. (2002). &#8220;Los desafíos de la migración. Antropología, educación e interculturalidad&#8221;. Anuario de psicología Vol. 33, nº 4 (487-498)
- Kottak, Conrad Phillip. (2007). &#8220;Capítulo 1. La Antropología y sus aplicaciones&#8221;. En Kottak, C.P. Introducción a la Antropología Cultural. McGrawHill: Madrid. (1-10).
- Odile Geraud, Marie (Coord.) (2011). Etnologiaren nozio giltzarriak. EHU; Bilbo
- Zulaika, Joseba. (2012) Tradizioak. Etxepare Euskal Institutua: Donostia.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

#### Aldizkariak

- Revista de Antropología Social
- Gazeta de Antropología
- Ankulegi
- Zainak

#### Interneteko helbide interesgarriak

- <http://www.un-instraw.org/>
- <http://www.msssi.gob.es/ssi/portada/home.htm>
- <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/es/>

## OHARRAK